

Hauteskunde Programa

Maite duzuna zaintzeko 80
proposamen

Gure indarra
berreskuratu, amesten
dugun Barakaldo eraiki

Aurkibidea

Barakaldoko Ahotsak – Las Voces de los Barrios.....1

Hauteskunde Programa
Maite duzuna zaintzeko 80 proposamen

Auzo guztiak zaindu.....4
Pertsonak zaindu.....9
Publikoa zaindu13

Marivi Freire gure alkategaia15

Barakaldoko Ahotsak - Las Voces de los Barrios

Barakaldokoak gara. Pertsona anitz eta pluralak gara, bertan bizi eta elkar bizi garenok. Zuk bezala, gure hiria eta auzoak maite ditugu. Barakaldokoa sentitzea gustatzen zaigu, hiri noble, ireki, abegikor, askotariko eta anitzekoa izatearen harrotasuna sentitzea.

Barakaldon bizitzea ez da erraza. Ez zen hala izan duela hamarkada batzuk, etorkizun hobe baten bila, alde guztietatik, familia asko honaino iritsi zirenean. Ez da erraza ezta gaur egun Barakaldora itxaropen berarekin datozenentzat ere. Bete gabe dauden behar izan guztiek zailtzen dute Barakaldon ondo bizitzea. Hainbeste auzolagun gorriak pasatzen ari direnean ez da erraza bertan bizitzea.

Auzoen abandonuak penatzen gaitu. Izorratu egiten gaitu utzikeria-istorioak entzuteak. Amorratzen gaituzte bete gabeko promesek, inoiz iristen ez diren obrek, kale zikinek, zuhaitz moztuek, diru publikoa betikoen mesedetan joaten dela ikusteak,...Ezin da lehen eta bigarren mailako auzorik egon.

Min egiten digu udalak gehien sufritzen duten familiak abandonatzeak. Auzoak ez ezik, auzoetan bizi diren familiak ere abandonatuta daude. Oso lazarria da askoren egoera. Izan ere, krisiak, eskariak, prezio igoerek... kolpatu dituzte hainbat. Min ematen digute pentsio ziztrin batekin bizirik dirauten aitona-amonek, etxetik botatako familiek, eraso egindako emakumeek, kalean lo egiten duten pertsonak, emantzipatu ezin diren gazteek, gaizki elikatutako familiek. Barakaldok min ematen digu.

Penatzen gaitu auzoek eurei eragiten dieten erabakietan ezin parte hartzeak. Ez dugu ulertzen erabakiak udaletxe barruan soilik hartzea. Gure ustez Udalak solik auzoen oniritziarekin funtziona lezake.

Barakaldoko bizilagunak gara, edozein alderdi politikotatik independenteak. Zortzi urtez lan egin dugu guztion bizi-baldintzak hobetzeko, lehenik Irabazi taldearekin eta geroago Elkarrekin taldearekin. Esperientzia horren ondorioz, Marivi Frerire, gure zinegotziaren bitartez, orain ondo dakigu nola funtzionatzen duen Udalak barrutik. Ondo dakigu zailtasun handiak daudela auzoen eta bizilagunen ahotsak gure bizitza eta bizikidetzak hobetzen edo okertzen duten erabakiak hartzen diren bulegoetaraino irits daitezzen.

Aurrerapausoa ematea erabaki dugun auzolagunak gara. Egoera honetaz nekatutako bizilagunak gara. Zurekin eta zure auzoarekin dugun konpromisoan oinarrituta hauteskunderi begira hautagaitza aurkeztea erabaki dugu. Gustuko ez dugun errealitate hori eraldatu nahian aurrerapauso bat emango dugu. Gure interesak defendatzeko modurik onena hautagaitza propioa aurkeztea dela uste dugu. Barakaldoko hautagaitza bat, Barakaldotik eta Barakaldorako eraikia. Auzo eta atari guztietako ahots guztiak biltzen dituen hautagaitza. Gertuko hautagaitza, harkorra. Zurekin eta zure zerbitzura dagoen hautagaitza bat.

Bada garaia Barakaldoko jendeari udaletxeko ateak parez pare irekitzeko. Kaleko ahotsak erakundearen bihotzeraino eramateko garaia da. Bada gure bizilagunak zaintzeko garaia. Udala auzoetako arazoak konpontzen jartzeko unea da.

Udalak zuentzat %100ean lan egin behar duelako. Plantilla erabat beteta, eraginkortasunez eta efizientziaz jardunez, behar den guztia inbertituz. Izan ere, horrela bakarrik lortu ahal izango dugu auzoentzako hain garrantzitsua den zerbitzu publikoen kudeaketa ona egitea. Soilik horrela lortu ahal izango ditugu kale garbiak eta osasuntsuak; horrela bakarrik prebenitu ahal izango ditugu segurtasun-gabeziako egoerak, bakarrik horrela inbertitu ahal izango dugulako kalitatezko tokiko enpleguan.

Eta abiapuntu horretatik gure proposamenak aurkezten dizkizugu, entzuteko eta adi egoteko oinarritik abiatuta, benetan uste baitugu udal politikak ez duela balio argazki finkoa bada. Horregatik, geure eta beste auzokide batzuen entzuketatik eta bizipenetatik abiatuta, neurriak aurkezten ditugu, baina beste batzuk defendatzeko ere prest gaude, gure motibazioa den aldetik: Barakaldo defendatzea eta bertako jendea defendatzea.

Barakaldo Ahotsak Barakaldoko arazoak konpontzea dela bere lehentasun nagusia harro esan dezakeen indar politiko bakarra. Etiketarik eta banderarik gabe, gure hiria pertsona guztientzako bizileku hobe bihurtzen dutenak baino.

Hauteskunde Programa

Maite duzuna zaintzeko 80 proposamen

Auzo guztiak zaindu

Lehen eta bigarren mailako auzorik egon ez dadin.

Auzoetako ahotsak bulegoetara irits daitezzen entzun eta tresnak jarri.

Auzoetan inbertitzea

- 1) Guneak eta ekipamenduak garbitzeko eta mantentzeko plana, auzoei eta erdiguneari garrantzi bera ematen diena.
- 2) Auzoetako ekipamendu soziokulturalak hobetzeko Inbertsio Plan Berezia. Plana diseinatzea auzo-elkarteekin elkarrizketan, auzo periferikoak eta eremu degradatuak lehenetsiz.
- 3) Indarkeria-egoera matxisten aurrean arriskutsuak izan daitezkeen puntu ez-seguruak kentzea.
- 4) Auzo seguruak, herritartasunerako eta bizikidetzarako gune gisa.
- 5) Eretza Udal Sozietatearen jarduera-ildo bat sortzea, Barakaldoko auzoetan etxebizitza-eraikinak birgaitzeko, irisgarritasunari, energia-eraginkortasunari eta barne-bizigarritasuneko baldintza duinei dagokienez.

Herritarren parte-hartzea

- 6) Udal Antolaketako Araudia aldatzea, herritarren benetako parte-hartzea ahalbidetzeko.
- 7) Sektore-kontseiluak berrikusi, eguneratu eta abian jarri, inplikaturako eragileekin batera lan eginez.
- 8) UPV/EHUrekin hitzarmena sinatzea, partaidetza-foroetan adituak diren ahotsak izateko, txostenak egiteko eta gezurrezko partaidetza-ereduak diseinatzeko enpresak kontratatzeari kontrajarrita.
- 9) Auzo-kontseilu lotesleak sortzea, auzotarrok egunerokoa eragiten diguten politiketan erabakitze gaitasuna izan dezagun.
- 10) Aniztasunaren Kontseilua sortzea izaera loteslearekin, dibertsitate funtzionala duten udalerriko pertsonak erabaki dezaten nola egin udalerriri irisgarri eta inklusibo bat beharrei erantzunez, haien eskubideak bermatuz eta autonomia pertsonala sustatuz.
- 11) Kudeaketa komunitarioko gizarte-etxeak, auzoen beharretara egokituak.
- 12) Benetako Aurrekontu Parte-hartzaileak abian jartzea, eta ez udalaren marketin-neurri gisa.
- 13) Partaidetzazko Udal Plangintza Estrategikoa, gure herriaren etorkizuna modu partekatuan diseinatu ahal izateko funtsezko esparruetan, hala nola trantsizio ekologikoan, mugikortasunean, enpleguan edo hirigintzan.
- 14) Asoziazionismoa eta boluntariora sustatzeko udal zerbitzua.

Barakaldo berdeagoa

- 15) Auzo guztietan berdeguneak berreskuratzea, mantentzea eta sortzea.
- 16) Zementu-uharteak kendu eta bero-boladak baino lehen instalazio publikoetan eta komunitarioetan eta aterpe klimatikoak sortzea.
- 17) Amianto Zero Plana. Barakaldoko mota guztietako eraikuntzetan eta espazioetan amiantoa ezabatzeko laguntzak eta aholkularitza, auzorik degradatuenetan arreta berezia jarritz.
- 18) Edukiontzi marroiaren sustapena eta hedapena.
- 19) Atez ateko hondakinen bilketa, Garbigunera bideratutako hondakinen birziklatze-ehunekoetan aurrera egiteko.
- 20) Ontziak, materia organikoa eta abar uzteagatiko ordainketan oinarritutako birziklatze-ereduen inplementazioa aztertzea.
- 21) Bizikletentzako hiri-ibilbidea, auzo eta baliabide publiko guztiak eta udalerrri mugakideak lotzen dituenak.
- 22) Kbusen flota erabat elektrifikatzea.
- 23) Meatzaldeko Biotopoa El Regato bailara osora zabaltzeko izapideak hasteko osoko bilkuraren agindua betetzea.
- 24) Eskualdeko birika berde gisa, El Regato, Argalarrio eta Basatxuko naturaguneei balioa ematea eta horiek berreskuratzea, azpiegitura handien bidez zatitzeko asmoari galga jarritz.
- 25) Tuntun mendia zuhaitz eta flora autoktonoz basotzea, ibaiertzeko espazioarekin lotuz.
- 26) A-8a eta trenbideak Barakaldo parean lurperatzearen aldeko apustua, auzoen arteko lotura berrantolatzeke aukera emango duten arteria berde handiak sortzeko azalera zabalak askatuz.

- 27) Tokiko energia-komunitateak garatzea, herritarren partaidetzatik abiatuta, eta udal-baliabide guztiak eskura jartzea, iturri fotovoltaikoak eta energia eoliko banatua garatzeko.
- 28) Udalerrian dauden urtegietan energia hidraulikoa garatzeko aukerak aztertzea.
- 29) Castaños, Galindo eta Kadagua ibaien ibilguak modu integralean birnaturalizatzea.
- 30) Itsasadarraren erribera partzialki birnaturalizatzeko aukerak aztertzea.

Pertsonak zaindu

Pertsonak eta familiak zaindu, denek gutxienez bizitokia eta janaria dutela ziurtatuz.

Bizitza hobe baterako aukera guztiak dituztela zaindu.

Zaintzen dutenak zaindu.

Enplegu duina eta kalitatezkoa

- 31) EPERako deialdia, Udalean eta mendeko erakunde publikoetan betetzeko dauden plaza guztiak betetzeko.
- 32) Udalak egindako kontratu guztietan klausula sozialak sartzea.
- 33) Kalitatezko tokiko enplegu-plana, Barakaldon bizi diren eta zailtasunak dituzten pertsonen aukerak emango dizkiena.
- 34) Tokiko industria- eta merkataritza-sarea sustatzen duten eta belaunaldien arteko erreleboa ahalbidetzen duten enpresa txiki eta ertainetan kontratatze laguntzak.
- 35) Merkataritza-gune handi berriak irekiera berriak mugatzea, 500mts²tik aurrera, tokiko merkataritza biziberritzeko bitarteko nagusi gisa.
- 36) Nekazaritza eta abeltzaintza estentsiboa berreskuratzea eta garatzea.
- 37) Nekazaritza eta abeltzaintza garatzeko bulegoa sortzea.

Etxebizitza duina eta egokia

- 38) Barakaldon bizi diren pertsonen etxebizitza duina eta egokia izateko duten eskubidea sustatzea.

- 39) Lurzoruarekin eta etxebizitzekin espekulatzea galaraztea, udalerrri osoa lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eremutzat joz orubeen eta eraikin osoen salmentari buruz.
- 40) Emandako obra-lizentziarik gabeko hirigintza-garapen guztiak behin-behinean bertan behera uztea.
- 41) Hiri Antolamenduko Plan Orokorra birplanteatzea, eremu deprimituak birgaitzeari eta dagoen etxebizitza-parkeari lehentasuna emanez, birgaitzearen bidez.
- 42) Barakaldo hirigintza aldetik tenkatutako eremu izendatzea eta udalerrri osoan alokairuaren prezioak mugatzea.
- 43) Eretza Udal Sozietatea Barakaldon alokairuko etxebizitza sozialen parke bat sortzeko tresna bihurtzea.
- 44) Tutoretzapeko etxebizitzak eta esperientzia pilotuak garatzea, nahi ez den bakardadea saihesteko eta mendeko adinekoak edo desgaitasunen bat duten pertsonak inguruan gera ez daitezen.

Politika feministak

- 45) Ikuspegi feministaren zeharkakotasuna bermatzea udal-politika guztietan, alkatezaren mendeko arlo batetik.
- 46) Indarkeria matxista guztietatik bizirik atera diren emakumeei arreta duina bermatzea, udal-emakumearen egungo zerbitzua zabalduz, trebatuz eta baliabidez hornituz.
- 47) Emakumeak Ahalduntzeko Udal Eskola, erakunde feministekin modu komunitarioan kudeatua.
- 48) Berdintasunerako Udal Kontseiluaren araudiaren garapen parte-hartzailea.
- 49) Lehentasunez iraultzea 010 zerbitzua (HAZ), etxez etxeko laguntza (SAD) eta udal eraikin eta instalazioen garbiketara udal kontratak, langileak publikoak izan daitezen. Arlo hauetan

besteak baino hitzarmen kolektibo txarragoak dituzten eta emakume langileen pobretzean eta prekarietatean zuzenean eragiten duten sektoreak.

Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen babesak

- 50) Klean lotan edo infraetxeetan bizi diren bizilagunak etxebizitzaz hornitzea.
- 51) Gizarte-zerbitzuak indartzea eta Barakaldon herritarren beharretara egokitutako neurriak izatea.
- 52) Zaurgarritasun-egoerak modu proaktiboan identifikatuko dituen udal-zerbitzu bat sortzea, pertsona zaharrenetatik hasita, eta baliabide eta zerbitzu publikoei buruzko informazio-kanpainak antolatuko dituenak.
- 53) Gizarte Larrialdietarako Laguntzei erantzuteko behar besteko aurrekontua bermatzea, urte osoan erabilgarri egongo direla bermatuz.
- 54) Gure adinekoen babesgabetasuna saihesteko neurriak, bakardadeagatik edo bizitzeko baliabiderik ezagatik.
- 55) Garapen komunitarioko taldeak abian jartzea, abandonatutako edo gutxi garatutako espazioak dinamizatzeko (doako lonjak ekintzaileen eskura, eskola indartzeko guneak, baratze komunitarioak, etab.).

Haurtzarora eta nerabezarora

- 56) Osasun mentala zaintzeko programa, haur eta nerabeentzat, hezkuntzaren esparruan. Arreta berezia jarriko zaie elikadura-jokabidearen nahasmenduei, gorputz-irudiaren autopertzepzioari edo sare sozialek autoestimuan duten eraginari.

Gazte ikuspegia

- 57) Alkatetzaren mendeko arlo bat sortzea, tokiko politika guztietan gazte-ikuspegia txertatzen dela bermatzeko.

Memoria eta bizikidetzak

- 58) Memoria demokratikoa eta giza eskubideen kultura garatzeko neurri eta programetan sakontzea.
- 59) Barakaldoko historia XX. eta XXI. mende osoan zehar latitude eta kultura desberdinetako jendea iristeko gune gisa eraikitzeko ekimenak, betiere etorkizun hobe baten bila beraientzat eta haien familientzat.
- 60) Pertsona guztiek baliabide eta zerbitzu publikoetarako sarbidea izango dutela bermatzea, erroldatuta egotearen arabera soilik, eta ez administrazio-egoeraren arabera.
- 61) Migratzaileei eta nazioarteko babes eskatzen dutenei arreta emateko leihatila bakarra.
- 62) Kultura arteko bizikidetzak-plana.
- 63) Espazio publikoan gizalegea eta herritarren bizikidetzak sustatzeko eta bermatzeko neurrien ordenantza sortzea.
- 64) Gorroto arrazista, xenofobo, ijitoen kontrako edo LGTBIfobikoko gertakarien aurrean jarduteko protokoloa onartzea.
- 65) Emakumeen aurkako indarkeriaren, gorroto-delituen eta LGTBIQ+ kolektiboaren aurkako udal-behatokia sortzea.

Aniztasun funtzionala

- 66) Irisgarritasun unibertsalaren arloan dagoen araudia betetzen dela bermatzea, legealdia amaitu aurretik Barakaldo udalerrin inklusiboa eta irisgarria izan dadin pertsona guztientzat.

Publikoa zaindu

Barakaldar guztiona dena.

Zikindutako eta usain txarreko kaleak ezabatzeko zaintzea, giro osasuntsua bermatzeko, edozein segurtasun-gabeziako egoerak prebenitzea.

Hasiera-hasieratik behar diren arlo guztiekin batera lan eginez.

Zerbitzu publikoen kudeaketa

- 67) Gaur egun enpresen onura guztien ongizatea baino gehiago bilatzen duten udal-zerbitzuak publikatzea. Besteak beste, kale-garbitaketako eta TAOko zerbitzuak kudeaketa publikora itzuli.
- 68) Udal-zerbitzu edo ekipamendu publikoen kudeaketa komunitarioko esperientziak babestea eta erraztea, eta, horretarako, arautzeko arau-esparru bat ezartzea.
- 69) Azken 2 legealdietako gizarte-auditoretza, udalarena, lotutako erakundeena eta udal-enpresa publikoena.

Hiri-mugikortasuna

- 70) Kbusen ibilbideak hobetzea eta garatzea. Garraio publikoko nodoekiko konektibitatea hobetzea, osasun-zentroetan geralekuak ezartzea eta auzo periferikoekiko arreta lehenestea.
- 71) BECeko kotxetegieta Leioako campusera joateko hiri-garraioko linea berri bat sortzea sustatzea, maiztasun egokia bermatuz.

Osasun publikoa, unibertsala eta komunitarioa

- 72) Osasun-zerbitzu publikoaren defentsaren eta garapenaren alde egitea, ikuspegi komunitario, feminista eta prebentziozkoa lehenetsiz.

- 73) Osasun Mentaleko Mahaia abian jartzea, osoko bilkuran onartutakoa betetzeko beharrezkoak diren eragile soziosanitario, tekniko eta politiko guztiekin koordinatuta.
- 74) Aritu akademikoekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin koordinatuta, osasunaren ikuspegia indartzea politika guztietan.
- 75) Osakidetzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin koordinatuta, estrategia soziosanitarioa modu eraginkorrean ezartzea.
- 76) Suizidioa Prebenitzeko I. Udal Plana abian jartzea.

Euskara

- 77) Udal Euskaltegiaren doakotasuna C1 mailaraino.
- 78) Udaleko egungo plantilla eta udal-kontratak euskalduntzeko plana, pertsona guztien aukerako hizkuntzan arreta bermatzeko.
- 79) Euskararen eguneroko erabilera zabaltzeko plana, tokiko elkarteekin koordinatuta.
- 80) Aisialdia eta denbora libre euskaraz eskaintzea, adin eta behar desberdinetara egokituta.

Marivi Freire gure alkategaia



Marivi Freirek 48 urte ditu, Errekaortu auzoan hazi eta gaur egun Arrontegin bizi da...

20 urte baino gehiago daramatza gizarte-bazterkeriaren, pobrezia eta indarkeria matxistaren aurkako gizarte-mugimenduetan aktiboki parte hartzen.

Azken 8 urteetan udaletxean, beste zerrenda batzuen bitartez parte hartu du. Gaur egun Elkarrekin Barakaldoko zinegotzia da.

Denbora honetan administrazioaren jardunbidea barru barrutik ezagutu du. Horrenbestez, ondo ezagutzen ditu auzoetako ahotsek gure bizitzak

baldintzatzen dituzten bulegoetara hel daitezen existitzen diren zailtasunak.

Gaur egun, prebentzio-teknikari gisa lan egiten du, Udaleko jarduerarekin uztartzen duen lanbidea.

Lantalde osoaren biografiak barakaldokoahotsak.eu webgunean irakur ditzakezu.



ahotsak

las voces de los barrios



ahotsak
Los barrios
de los barrios
Autismo

@ahotsakbarrios
@ahotsakbarrios
@ahotsakbarrios
ahotsakbarrios@gmail.com
ahotsakbarrios.org

Twitter, Facebook, Instagram, WhatsApp, Email, QR code

